Abadiño
Elizateko Udala

ASTOLAKO KIROLDEGIKO OSTALARITZA-INSTALAZIOAK USTIATZEKO KONTZESIOA ESLEITZEKO NORGEHIAGOKAKO PROZEDURA PUBLIKOKO KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS RECTORAS DEL PROCEDIMIENTO PÚBLICO EN CONCURRENCIA COMPETITIVA PARA ADJUDICAR LA CONCESIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DE LAS INSTALACIONES HOSTELERAS SITAS EN EL POLIDEPORTIVO DE ASTOLA.

1.- PROZESUAREN XEDEA

Prozesu honen xedea da Astolako kiroldegiko ostalaritza-instalazioak ustiatzeko kontzesioa esleitzea.

1.- OBJETO DEL PROCESO

El objeto de este proceso es la adjudicación de la concesión de la explotación de las instalaciones hosteleras sitas en el polideportivo de Astola.

2. LOKALAK

Kiroldegiko taberna eta futbol-zelaiko taberna kokatuta dauden espazioak ustiapenaren xede izango dira, eta horien planoak erantsi dira.

Instalazioaren gainerakoa Udalari eta zerbitzua ematen duen enpresari dagokie.

Plegu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango du.

2. LOCALES

Serán objeto de explotación los espacios en los que se ubican el bar del polideportivo y el del campo de fútbol, cuyos planos se adjuntan.

El uso del resto de la instalación corresponde al Ayuntamiento y a la empresa prestadora del servicio.

En caso de incumplimiento de las condiciones establecidas en este pliego, se podrá resolver el contrato por parte del Ayuntamiento.

TABERNA USTIATZEKO BALDINTZAK

CONDICIONES PARA LA EXPLOTACIÓN DEL BAR

3.- TABERNA USTIATZEKO KONTZESIOAREN IRAUPENA

Baimena bi urterako izango da, baina urtez urte luzatu ahal izango da alde biek hala adosten badute, gehienez 10 urte egin arte.

3. -DURACIÓN DE LA CONCESIÓN DEL BAR

El permiso tendrá una duración de 2 años, pudiendo ser prorrogado de común acuerdo por periodos anuales hasta alcanzar un máximo de 10.

4. -KANONA

Ez da egongo hilero-hilero ordaindu beharreko gutxieneko preziorik; prezio hori azken esleipendunaren eskaintzaren emaitza izango da. Kontratuaren lehenengo hiru urteetan prezioa eskaintzan jarritakoa izango da, baina kontratua luzatzen bada prezioa KPIaren arabera igoko da.

4. -CANON

No existirá precio mínimo a abonar mensualmente, siendo así el resultante de la oferta del adjudicatario final. Durante los tres primeros años del contrato el precio será el establecido en la oferta, pero, de acudirse a las prórrogas, el precio se incrementará conforme al IPC.

5.- KONTSUMIZIOEN PREZIOA

Prezioen taula jendaurrean jarri beharko da, kontsumitzaileen eskura dauden produktu guztien zerrendarekin batera.

5.-PRECIO DE LAS CONSUMICIONES

Deberá exponerse al público la tabla de precios con todos los productos a disposición de los consumidores.

6.- TABERNA ZABALTZEKO GUTXIENEKO EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

a) Datak:
Instalazioak urteko 365 egunetan ireki ahal izango dira, kiroldegiaren eta futbol-zelaiaren funtzionamendu-ordutegian.

Instalazioak (bi lokalak) ondoz ondoko 2 hilabete baino gehiago edo urtean 120 egunez martxan ez badaude, Udalak baimena kendu ahal izango du. Gainera, egoera horrek berekin ekarriko du aurkeztutako bermea konfiskatzea, Udalari eragindako kalte-galerengatik.

Igerilekuko tabernaren instalazioa udan bi aste jarraian baino gehiago itxita badago, edo udan tabernari jaramonik ez egiteko borondate argia ikusten bada, Udalak baimena kendu ahal izango du, aurrez aipatutako baldintzetan.

6.- FECHAS Y HORARIOS MÍNIMOS DE APERTURA

a) Fechas:
Las instalaciones podrán abrirse durante los 365 días del año, durante el horario de funcionamiento del polideportivo y el campo de fútbol.

Si las instalaciones (ambos locales) permanecieren inoperativas más de 2 meses seguidos, o durante 120 días al año, el Ayuntamiento podrá retirar la autorización. Además, esta situación conllevará la incautación de la garantía presentada, en concepto de daños y perjuicios causados al Ayuntamiento.

Si la instalación del bar de la piscina permaneciere más de 2 semanas seguidas inoperativa, o se advirtiere una manifiesta voluntad de desatender el bar, durante el periodo estival, el Ayuntamiento podrá retirar la autorización, en las condiciones referidas previamente.

b) Ordutegia:
Kiroldegiaren irekiera-ordutegian taberna irekita egon ahal izango da.

Udalarekin adostu ahal izango da establezimendua kiroldegiaren irekiera-ordutegitik harago irekitzea.

7. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Ez da egongo ezelango lan-loturarik ez Udalarekin ez kirol zerbitzua eskaintzen duen enpresarekin. Loturarik eza bera egongo da esleipendunak kontratatzen dituen langileekin. Esleipendunak langileak hartzen baditu, bere gain joango da horien Gizarte Segurantza.

Udalak aldi baterako azpierrentamenduak baimendu ahal izango ditu, betiere azpierrentariak emakida esleitzeko kontuan hartutako baldintza guztiak betetzen baditu.

a) Esleipendunak alta hartu beharko du Gizarte Segurantzako Autonomoen Araubide Berezian eta garatuko duen jarduerari dagokion Jarduera Ekonomiko eta Enpresarialen gaineko Zergan, eta berak ordainduko ditu dagozkion zerga edo tasa autonomikoak, probintzialak zein udalarenak.
b) Bere ardura izango da lokalak eta sukaldeko tresnak garbitzea.
c) Kontratua sinatzen den unean lokalean dauden ondasun eta tresnak, inbentarioko eranskinetan ageri direnak, esleipendunak bere kontura lehengoratuko ditu, erabilgarritasun epea amaitu izanagatik ez bada. Kontratua bukatutakoan hasierako inbentarioak bere

b) Horario:
Durante el horario de apertura del polideportivo el bar podrá permanecer abierto.

Se podrá acordar con el Ayuntamiento la apertura del establecimiento más allá del horario de apertura del polideportivo.

7. DEBERES DEL ADJUDICATARIO

No existirá vinculación alguna de tipo laboral con el Ayuntamiento ni con la empresa prestadora del servicio deportivo; desvinculación que también afectará al personal que pueda contratar la persona concesionaria, en cuyo caso igualmente tendrá a su cargo la afiliación a la Seguridad Social del citado personal.

El Ayuntamiento podrá autorizar subarriendos temporales, siempre que el subarrendatario cumpla con todas las condiciones tenidas en cuenta para la adjudicación de la concesión.

a) Deberá darse de alta en la Seguridad Social en el Régimen Especial de Autónomos y en el Impuesto sobre Actividades Económicas y Empresariales en la actividad a desarrollar, así como atender a los impuestos o tasas autonómicas, provinciales o municipales que correspondan.
b) Deberá responsabilizarse de la limpieza de los locales y los utensilios de cocina.
c) Correrá a su cargo la reposición de los bienes y útiles existentes en el momento de firma del contrato y que se recogen en los pertinentes Anexos de inventario, salvo que hayan de sustituirse por finalizar su vida útil. En el caso de que, al

horretan jarraitzen badu, inbentarioa Udalari itzuliko zaio.

d) Txaberna txukun eduki behar da, ontziak eta altzariak egoera onean, barrualdea itxuroso, eta hezetasun, lizun eta antzeko arazoak egon ezkero Udalari abisatuko zaio.

Era berean, esleipendunak zoli zaindu eta mantenduko ditu lokala eta bertako tresna guztiak.

e) Tabernako kartelak elebidunak izan behar dira (euskaraz eta gazteleraz).

f) Kartel eta ikonografia guztietan errespetatuko da pertsona guztien sexu izaera, sexu nortasuna, erlijioa, arraza, eta abar. Halaber, tabernak jartzen edo argitaratzen duen ezein dokumentu, publizitate, informazio, musika, irudi zein materialetan ez da zabalduko inorentzat baztertzailea gerta daitekeen mezurik.

g) Ezin da ez tabakorik saldu, ez apustu-makinarik jarri.

h) Esleipendunak bezeroen eskaerak euskaraz ulertzeko adinako gaitasuna izan beharko du. Ezingo da alegatu erabateko ezgaitasunik bezeroen eskaerak euskaraz jasotzeko.

i) Esleipendunaren ardura da negozioaren ordena eta funtzionamendu egokia mantentzea, eta ezarritako baldintzak betetzea.

j) Ur eta elektrizitate hornidurak esleipendunaren kontura doaz.

k) Esleipendunak arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat, gutxienez 300.000 eurokoa, kontratatu eta mantendu beharko du taberna ustiatzen duen denbora guztian. Udalak, bere aldetik,

finalizar el contrato, el inventario inicial persista, éste se devolverá al Ayuntamiento.

d) Deberán mantenerse unas condiciones mínimas de decoro en el bar, uniformidad y buen estado de la vajilla y mobiliario, buen aspecto del interior, aviso al ayuntamiento en casos de humedades, moho, etc.
Igualmente deberá mostrarse diligente a la hora de cuidar y mantener el local y todos sus enseres.

e) La cartelería del establecimiento deberá ser bilingüe (euskera-castellano).

f) Toda la cartelería e iconografía que se exhiba deberá ser respetuosa con la condición sexual, identidad sexual, religiosa, raza, etc. Asimismo, se abstendrá de cualquier mensaje manifiestamente discriminatorio hacia cualquier colectivo en todos los documentos, publicidad, información que publique, música, imágenes, materiales, etc.

g) No podrá venderse tabaco ni colocarse máquinas de apuestas.

h) Deberá contarse con capacidad suficiente para comprender las peticiones de los clientes en euskera. En ningún caso podrá alegarse la absoluta incapacidad para recibir las peticiones de los clientes en euskera.

i) La parte adjudicataria asume la responsabilidad del buen orden y funcionamiento del negocio, así como del cumplimiento de las condiciones establecidas.

j) Correrán a cargo de la parte adjudicataria los suministros de agua y electricidad.

k) El adjudicatario deberá contratar y mantener durante la explotación de la actividad un seguro de responsabilidad civil por riesgos profesionales por importe no inferior a 300.000 euros. El ayuntamiento, por su parte, no asumirá

ez du onartuko inolako erantzukizunik, ez zuzenik ez subsidiariorik.

8.- BAIMENAREN KONTROLA

1.- Udal langileek hitzartutako baldintzen jarraipena egingo dute eta behar diren jarraibideak emango dituzte segurtatzeko jarduera behar bezala egiten dela.

2.- Beren eginkizunak betetzeko, udal-langile arduradunek iruditzen zaizkien ikuskapenak egin ahal izango dituzte baimendutako jarduera behar bezala egiten ari dela ziurtatzeko.

3.- Bereziki, udal-langile arduradunek zeregin hauek izango dituzte:

a) Egiaztatzea esleipenduna betetzen ari dela emakidaren baldintzak aurreikusitako epean.

b) Edozelako ez-betetzeen berri ematea Udalari, eta, hala dagokionean, proposatzea zigorrak ezartzeko prozedurak hastea, emakida etetea, emakida ezeztatzea, eta behar diren neurriak hartzea, bai bermatzeko ondo betetzen ari direla ezarritako baldintzak, bai ordainarazteko baimendutakoa ez betetzeak Administrazioari dakarzkion kalte-galerak.

c) Aldaketak gomendatzea emakidan, hala nola zehaztapenak, jarraibideak edo bestelako baldintza batzuk proposatzea operazioak eraginkorragoak izan daitezen.

d) Oro har, kontrolatzea ondo betetzen direla jardueraren segurtasuna eta txukuntasuna bermatzen duten agindu guztiak.

ningún tipo de responsabilidad, ni directa ni subsidiaria.

8.- CONTROL DE LA AUTORIZACIÓN

1.- El personal municipal supervisará el correcto seguimiento de las condiciones pactadas y dictará las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta marcha de la actividad.

2.- Para el ejercicio de sus funciones, el personal municipal responsable podrá realizar las inspecciones que consideren oportunas para asegurar el correcto desenvolvimiento de la actividad autorizada.

3.- En particular, el personal municipal responsable realizará las siguientes funciones:

a) Comprobar que la ejecución se desarrolla en los términos de la concesión, y en el plazo de duración previsto.

b) Informar al Ayuntamiento sobre los incumplimientos de cualquier clase y, cuando corresponda, proponer el inicio del procedimiento de imposición de penalidades, la suspensión de la concesión, la revocación de esta y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para garantizar el correcto cumplimiento de las condiciones establecidas o para resarcir a la Administración de los daños y perjuicios que provoque el incumplimiento de lo autorizado.

c) Recomendar cualquier cambio necesario en la concesión, como especificaciones, instrucciones u otros requisitos que proporcionen operaciones más eficaces.

d) En general, controlar que se cumplen todas aquellas prescripciones que aseguren la seguridad y el decoro en la actividad.

Abadiño
Elizateko Udala

10.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak:

- Ezarritako obligazioak atzerapenez betetzea.
- Aplikazio orokorreko araudia eta, bereziki, Udalaren ebazpenak ez betetzea.
- Abadiñoko Udalaren ikuskapena ez onartzea.
- Larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein ekintza edo omisio.

Arau-hauste arinek 100 euroko zigorra izango dute.

Arau-hauste larriak:

- Bi arau-hauste arin egitea.
- Esleipendunak zerbait egitea higiezinaren edo instalazioen balioa gutxitzen duena.
- Baimendutako jarduera ez den besteren bat egitea.
- Ez betetzea jardueraren ordutegiak edo Udalak ezarritakoak.

Arau-hauste larriek 300 euroko isuna izango dute.

Arau-hauste oso larriak:

- Bi arau-hauste larri egitea.
- Eskainitakoa ez betetzea.

10.-INFRACCIONES Y PENALIDADES

Las infracciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

Serán infracciones leves:

- Los retrasos en el cumplimiento de las obligaciones establecidas.
- El incumplimiento de la normativa de aplicación general y de las resoluciones del Ayuntamiento en particular.
- El no sometimiento a la inspección del Ayuntamiento de Abadiño.
- Cualquier otro tipo de acción u omisión que no esté expresamente calificada como grave o muy grave.

Las infracciones leves serán penalizadas con 100 euros.

Serán infracciones graves:

- La reiteración de dos infracciones leves.
- La actuación del arrendatario que dé lugar a la depreciación del inmueble o la de las instalaciones.
- El ejercicio de actividad distinta a la permitida.
- El incumplimiento de los horarios de la actividad, o, en su defecto, de los establecidos por el Ayuntamiento.

Las infracciones graves serán penalizadas con 300 euros.

Serán infracciones muy graves:

- La reiteración de dos infracciones graves.
- El incumplimiento de la oferta.

- Errespetu barik erabiltzea herritarrak, eta instalazioak txukun eta garbi ez edukitzea.
- Bere garrantziagatik alarma soziala sortzen duen edo interes publikoaren kontra doan beste edozer egitea.
- Garbiketako, komuneko zein harraskako hondar eta zikinak estolderia sarera botatzea.

Arau-hauste oso larriek 500 euroko zigorra izango dute eta kontzesioa etenarazi ahal izango dute.

Zigor horiek ezartzeak ez du kentzen dagozkion kalte-galerak ordaindu beharra.

- La falta de respeto en el trato con los ciudadanos, la falta de decoro y salubridad en las instalaciones.
- Cualquier otra que por su trascendencia o importancia cree alarma social o contradiga con gravedad el interés público.
- El vertido de restos de limpieza, W.C., fregadera, en la red de alcantarillado.

Las infracciones muy graves serán penalizadas con 500 euros y habilitarán la extinción de la concesión.

La imposición de estas penalidades no sustituirá la indemnización por daños y perjuicios que pudiere existir.

11.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioaren eskumena da Plegua interpretatzea, Plegua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta Plegua aldatzea, kontratua ezeztatzeko erabakia hartzea eta kontratuaren ondorioak zehaztea, betiere Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako muga eta ondorioekin.

11.-PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el pliego, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar la revocación del contrato y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y demás normativa de aplicación.

HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACIÓN

12. HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontzesio honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Bertan, enpresaburu guztiek proposamen bat aurkeztu ahal izango dute. Kontratuaren baldintzak ez dira negoziatuko alde lizitatzaileekin.

12. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACION.

La adjudicación de la concesión se realizará por procedimiento abierto, en el que toda persona empresaria podrá presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato con las partes licitadoras.

Kontzesioa esleitzeko, hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenari begiratuta.

La adjudicación de la concesión se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio.

13.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Prozedura honen iragarkia Abadiñoko Udalaren kontratatzaile-profilean (www.abadiño.eus) argitaratuko da, Euskadiko kontratazio-plataforman.

Era berean, kontuan hartuta zein den kontzesioaren xedea, bataz besteko herritarrak gehiago erabiltzen dituen beste hedabide batzuen bidez ere zabalduko da.

13.- PERFIL DE CONTRATANTE

El anuncio del presente procedimiento será objeto de publicación en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Abadiño (www.abadiño.eus) alojado en la plataforma de contratación de Euskadi.

Asimismo, dadas las características del objeto de la concesión, se dará difusión por otras vías más utilizadas por el ciudadano medio.

14.- BAIMENA JASOTZEKO GAITASUNA

Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta beren kaudimena egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aipatutako inguruabarretako batek ikutzen ez baditu.

Gainera, pertsona juridikoek helburutzat izan behar dute kontratu honen xedearekin lotura zuzena duten jarduerak egitea, eta ostalaritzako jarduera behar bezala egiteko behar adina elementu pertsonal eta material dituen antolakunde bat izatea.

14.- APTITUD PARA SER AUTORIZADO

Podrán tomar parte en este procedimiento las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia y no estén afectadas por ninguna de las circunstancias enumeradas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Además, las personas jurídicas deberán tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para el debido ejercicio de la actividad hostelera.

Era berean, egunean eduki behar dira indarrean dauden xedapenek zerga eta Gizarte Segurantza arloan ezarrita dituzten obligazioak

Igualmente, deberá hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

Kaudimen teknikoa:

Solvencia Técnica:

Esleipendunak gutxienez 2 urteko esperientzia izan beharko du ostalaritza-jardueren titular gisa.

El adjudicatario deberá contar con al menos 2 años de experiencia como titular de actividades de hostelería.

Halaber, 7. paragrafoan aipatutako erantzukizun zibileko asegurua sinatu beharko da.

Asimismo, se requerirá la suscripción del seguro de responsabilidad civil citado en el apartado 7.

15.- LIZITAZIORAKO BALDINTZA

15.- CONDICIÓN DE LA LICITACIÓN

Lizitazioan baloratuko diren alderdi guztiei erantzun beharko die eskaintzak. Hala egiten ez duten eskaintzak balorazio-mahaiak baztertu egin ditzake.

La oferta deberá pronunciarse sobre todos los extremos que se valorarán. Aquellas ofertas que no lo hicieren podrán ser descartadas por la mesa de valoración.

16.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA

16.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

16.1- Aurretiazko baldintzak
Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten Plegu eta dokumentuetara egokitu beharko dira, eta horiek aurkezte hutsak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela euren klausula edo baldintza guztiak, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

16.1- Condiciones previas
Las proposiciones de las personas interesadas deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por la parte empresaria del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna.

Entitate lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago, ezingo du sinatu beste batzuekiko aldi baterako elkarte proposamenik baldin bere eskaintza banaka aurkeztu badu, eta ezingo da aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu.

Cada entidad licitadora no podrá presentar más de una proposición, ni suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar

Interesdun batek arau hauek hausten baditu, sinatu dituen proposamen guztiak baztertu egingo dira.

16.2- Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea
Lizitazio hau tramitatzeko, proposamenak paperean aurkeztuko dira gutunazal batean sartuta.

Lizitazio honen espedientea, eta berarekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Abadiñoko Udaleko Idazkaritza Sailean aztertu ahal izango da, bulego orduetan (09:30etik 14:30era), egun baliodun guztietan (zapatuetan izan ezik), lizitazio honen iragarkia Abadiñoko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Eskaintzak Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira (Helbidea: San Trokaz plaza z/g, 48220 PK, Abadiño), 09:00etatik 14:00etara bitartean, **15 egun naturaleko** epean lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Proposamenak Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresaburuak justifikatu egin beharko du bidalketaren data Postetxean eta eskaintza posta elektronikoz bidali duela jakinarazi beharko du kontratazioa@abadiano.eus helbidera idatzita.

a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

16.2- Lugar y plazo de presentación de ofertas
Para la tramitar la presente licitación se presentarán los sobres con las propuestas en papel.

El expediente de esta licitación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Departamento de Secretaría del Ayuntamiento de Abadiño, en horario de oficina (de 09:30 a 14:30), todos los días hábiles (excepto sábados), a partir del siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de esta licitación en el Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Abadiño, y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones.

Las ofertas se presentarán en el Registro de Entrada del Ayuntamiento con domicilio en San Trokaz plaza s/n, CP 48220, Abadiño, en horario de 09:00 a 14:00, **dentro del plazo de 15 días naturales** contados a partir del día siguiente al de publicación del anuncio de licitación en el Perfil de contratante.

Las proposiciones podrán presentarse en cualquiera de los lugares establecidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Cuando las proposiciones se envíen por correo, la parte empresaria deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar la remisión de la oferta mediante correo electrónico a la dirección kontratazioa@abadiano.eus.

Bi baldintza horiek bete ezik, proposamena ez da onartuko baldin kontratazio organoak eskaintza jasotzen badu lizitazioaren iragarkian adierazitako epea bukatu ondoren. Nolanahi ere, egun horretatik hamar egun igaro ondoren dokumentazioa jaso ez bada, ez da onartuko.

Sin la concurrencia de ambos requisitos, no será admitida la proposición si es recibida por el órgano de contratación con posterioridad a la fecha de terminación del plazo señalado en el anuncio de licitación. En todo caso, transcurridos diez días siguientes a esa fecha sin que se haya recibido la documentación, esta no será admitida.

16.3.- Informazioa lizitatzaileentzat

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138. artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eskatu beharra dagoenean, administrazio kontratatzailea behartuta dago informazio hori ematera eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino sei egun lehenago, gutxienez, baldin eskaera egiten bada data hori baino hamabi egun lehenago. Lizitazio iragarkian aurreikusitako helbide elektronikoan egingo da eskaera hori.

16.3.- Información a las partes licitadoras

Cuando sea preciso solicitar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, al menos, seis días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, siempre que dicha petición se presente con una antelación mínima de doce días respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará a la dirección de correo electrónico prevista en el anuncio de licitación.

16.4.- Proposamenen edukia

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, hiru gutunazal itxitan (A, eta B). Gutunazal bakoitzaren aurrealdean, gutunazal bakoitzari dagokion letraz gain, testu hau agertuko da:

16.4.- Contenido de las proposiciones

Las proposiciones para tomar parte en la licitación se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, en tres sobres cerrados (A, y B), en cuyo anverso deberá figurar, además de la letra correspondiente a cada sobre, la siguiente inscripción:

“ASTOLAKO KIROLDEGIKO TABERNA USTIATZEKO KONTZESIOA LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEKO PROZEDURA PUBLIKOA”.

“PROCEDIMIENTO PÚBLICO EN CONCURRENCIA COMPETITIVA PARA ADJUDICAR LA CONCESIÓN DEL BAR DEL POLIDEPORTIVO DE ASTOLA”.

Proposamen bakoitzak dokumentu hauek izan behar ditu:

- A gutunazala: Dokumentazio administratiboa

Cada una de las proposiciones contendrá los siguientes documentos:

- Sobre A: Documentación administrativa

i. Erantzukizunpeko aitorpenak Plegu honi atxiki zaion I. Eranskineko ereduari jarraitu behar dio.

ii. Helbide elektroniko bat nora bidali jakinarazpenak, errekerimenduak, argitasun eskariak, dokumentazio osagarria eta/edo akats zuzengarriak daudela jakinarazteko komunikazioak.

iii. Ostalaritza-jardueren titular gisa izandako esperientziari dagokion kaudimen-betekizuna bete izanaren justifikazioa.

- B gutunazala: II. Eranskinaren araberako proposamen ekonomikoa (eta euskera ziurtagiria, izatekotan).

i. La declaración responsable deberá ajustarse al modelo facilitado en el presente pliego como Anexo I.

ii. Una dirección de correo electrónico para efectuar las notificaciones, requerimientos o solicitudes de aclaraciones, documentación complementaria y/o la comunicación de existencia de vicios subsanables.

iii. Justificación del cumplimiento del requisito de solvencia relativo a la experiencia como titular de actividades de hostelería.

- Sobre B: Proposición económica conforme al Anexo II (y certificado de euskera, en su caso).

17. BALORAZIO MAHAIA

Balorazio Mahaiak kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Alkatea
Bokalak: Udal idazkaria
Bokalak: Udaleko kontu-hartzailea
Idazkaria: Idazkaritzako/kontratazioko administraria

17. MESA DE VALORACIÓN

La Mesa de Valoración estará integrada o constituida del modo siguiente:
Presidente: Alcalde
Vocales: Secretario municipal
Vocales: Interventor municipal
Secretario: Administrativa de secretaría/contratación

18. PROPOSAMENEN IREKIERA

Posible dute azaltzea, baita ere, Mahaiak laguntzailetzat deitzen dituen udal teknikari guztiak, aholkulari lana egiteko.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren eratuko da Kontratazio Mahaia, A gutunazala zabalduko du eta bertan dagoen dokumentazio administratiboa kalifikatuko du.

18. APERTURA DE PROPOSICIONES

Podrán asistir, además, todo aquel personal técnico municipal cuya presencia sea solicitada por la Mesa, para ejercer labores de asesoramiento.

La Mesa de Contratación se constituirá tras la finalización del plazo de presentación de las proposiciones, procederá a la apertura del Sobre A y calificará la documentación administrativa contenida en el mismo.

Txostena egin ondoren, mahaiak bere berri emango du eta B gutunazala zabalduko du.

Beharrezkoa bada, mahaiak hiru egun naturaleko epea emango du, gehienez, lizitatzaileak zuzendu ditzan aurkeztutako dokumentazioan ikusitako akats edo omisio konpongarriak.

Ikusi ondoren egindako proposamenaren eta eskaintza ekonomikoaren (B gutunazala) balorazioa ikusirik, Balorazio Mahaiak baimena puntu gehien lortzen duen izangaiari esleitzea proposatuko du.

19.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

- Balio-judizioen menpeko irizpideak:
  - Arreta emango duten pertsonei dagokienez, Euskaraz hitz egiten jakitea baloratuko da 15 punturaino. Bereziki baloratuko da komunikatzeko erraztasuna eta gaitasuna izatea. Gaitasun hori neurtzeko 10 minutuko elkarrizketa bat egingo da Udalaren euskara teknikari eta/edo itzultzailearekin; halakorik ezean, 3. hizkuntza-eskakizuna edo handiagoa duen funtzionarioren batekin.
    - Erdi mailako ezagutza: 5 puntu (1. HEaren baliokidea)
    - Maila ertain-altua: 10 puntu (2. HEaren baliokidea)
    - Ezagutza-maila handia: 15 puntu (3. HEren baliokidea)

Puntuazio hori lortuz gero, baloratutako puntuazioa ordezkatzen duten pertsonek ere maila bera izan beharko dute.

Una vez realizado el informe, la mesa dará cuenta de este y procederá a la apertura del Sobre B.

Si fuera necesario, la Mesa concederá un plazo no superior a tres días naturales para que la parte licitadora corrija los defectos u omisiones subsanables observados en la documentación presentada.

A la vista de la valoración de la proposición efectuada y la oferta económica (Sobre B), la Mesa de Valoración propondrá la adjudicación de la autorización al candidato que mejor puntuación obtenga.

19.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

- Criterios sujetos a juicio de valor:
  - Con respecto a las personas que atiendan al público, se valorará el conocimiento del euskera hablado hasta 15 puntos. Se dará especial valor a la fluidez y capacidad de comunicación. La valoración será efectuada mediante conversación de 10 minutos con la Técnica de Euskera y/o el Traductor municipal; en su defecto, con algún funcionario con perfil lingüístico 3 o superior.
    - Nivel medio de conocimiento: 5 puntos (equivalencia PL1)
    - Nivel medio-alto de conocimiento: 10 puntos (equivalencia PL2)
    - Nivel alto de conocimiento: 15 puntos (equivalencia PL3)

En caso de que se obtenga esta puntuación, las personas que sustituyeren a aquella valorada deberán también contar con el mismo nivel.

*Bestela, kontratatutako pertsona guztiek B2 euskara-maila edo handiagoa izateko konpromisoa hartzen bada, 7,5 puntu lortuko dira.

- Irizpide objektiboak:
  - Udan janari-menuak edo plater konbinatuak eskaintzeko konpromisoagatik: 30 puntu.
  - Futbol zelaiko tabernan pintxoak eskaintzeko konpromisoagatik: 20 puntu.
  - Prezioa (35 punturaino): errenta handiena eskaintzen duen izangaiak 35 puntu lortuko ditu. Gainerako puntuazioak formula honen arabera kalkulatuko dira:

(Gehieneko puntuazioa x baloratzen den eskaintza)
Puntuak =----------
Eskaintza altuena

Berdinketa gertatzen bada jarraitu beharreko irizpideak:

Eskatzaile bi edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, zozketa bidez ebatziko da lizitatzaile interesatuen artean. Zozketa egiteko eguna iragarki oholean eta Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

20.- ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen onena aurkezten duen lizitatzaileari dokumentu hauek aurkezteko eskatuko zaio:

a) Zerga eta Gizarte Segurantza arloko obligazioak beteta edukitzea frogatzen duten agiriak aurkeztea eta, hala badagokio, erantzukizunpeko

*Alternativamente, si se adquiere el compromiso de que todas las personas contratadas cuenten con nivel de euskera B2 o superior, se obtendrán 7,5 puntos.

- Criterios objetivos:
  - Por el compromiso de ofrecer menús de comida o platos combinados durante el verano: 30 puntos.
  - Por el compromiso de ofrecer pintxos en el bar del campo de fútbol: 20 puntos.
  - Precio (hasta 35 puntos): el candidato que ofrezca una mayor renta obtendrá 35 puntos. El resto de las puntuaciones se calcularán conforme a la siguiente fórmula:

(Puntuación máxima x Oferta que se valora)
Puntos = ----------
Oferta más alta

Criterios que seguir en caso de empate:

Si se produjera un empate entre dos o más solicitantes, se resolverá por sorteo entre las licitadoras interesadas. La fecha de celebración del sorteo se publicará en el tablón de anuncios y en la sede electrónica municipal.

20.- REQUERIMIENTO DE DOCUMENTACIÓN

A la licitadora que presente la mejor propuesta se le requerirá para que presente la siguiente documentación:

a) Aportar la justificación acreditativa del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y en su caso,

aitorpenean aipatzen den dokumentazioa aurkeztea.

b) Baimenaren xede den jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, alta bera aurkeztuta baldin uneko ekitaldiaren gainekoa bada, edo JEZaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Kasu bietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena.

c) 2.500 euroko behin betiko bermea.

d) Aipatutako erantzukizun zibileko asegurua.

e) Alta Gizarte Segurantzan.

presentar la documentación a que hace referencia la declaración responsable.

b) Acreditación de estar dado de alta en el I.A.E., en el epígrafe que corresponda a la actividad objeto de autorización, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.

c) 2.500 euros de garantía definitiva.

d) Seguro de responsabilidad civil referido.

e) Alta en la seguridad social.

21.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza Plegu honetan aurreikusita ez dauden kontu guztietan lege hauei jarraituko zaie:

a) Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

b) 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legea.

c) Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.

d) 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.

e) Eta arlo honetan indarrean dauden gainerako xedapenak.

21.- RÉGIMEN JURÍDICO

En todo lo no previsto en este Pliego de Condiciones se estará a lo dispuesto en:

a) La Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local

b) Ley de Contratos del Sector Público 9/2017.

c) Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales

d) Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

e) Y demás disposiciones vigentes en la materia.